

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure Hi Anai! enpresan dugun produktua saltzeko, eta batez ere enpresa txiki bat garenez jendeak zer produktu mota egiten dugun jakiteko, zenbait funtsezko jarduera oso garrantzitsu ikusten ditugu, eta horiek hurrengo hauek dira.

Jarduera horietako bat da, jendeak gure enpresa eta produktuaren berri izateko, propaganda eta publizitatea ugari egingo genuke enpresa txiki bat garelako, baina, batez ere, guk eskaintzen dugun produktua merkatuan ez delako ikusten.

Konpetentzia hori ez edukitzean gure produktua mundu osoan zabaltzea da gure helburu nagusienetako bat. Azkenean, guk badakigu usaintzeko arazoak dituzten pertsonak mundu osoan zehar daudela eta guk merkatuan garrantzia hartzeko eta horrela gure produktua mundu osoan zehar zabaltzeko. Lehen esan dugun bezala, produktu hau ez dago merkatuan. Jendeak, enpresa txikia garenez ez du berri ez gure enpresaz ez gure produktu berri honi buruz. Badakigu gure produktu hau mundu osora zabaltzea ez dela erraza izango eta horretarako propaganda ugari egin beharko dugula. Beste aldetik, baita ere badakigu, gure produktu hau ez dela pertsona guztiontzat zabaldua usaintzeko sentsorea ez dutelako ondo usaintzen duten pertsonak erabili behar, baina usaintzeko arazoak dituzten pertsonak gure produktu hau asko baloratuko dutela eta erabilgarritasuna emango diotela.

Gauza horiek gertatzeko, eta batez ere, jendeak gure produktuaren berri izateko egin behar dugun gauzarik garrantzitsuena publizitatea dela. Jendeak eta batez ere usaintzeko arazoak dituztenak jakitea guk produktu bat sortu dugula jende horri laguntza emateko.